Zure herrian 'ARGIA emanaldiak' antolatzen lagundu nahi diguzu?

2011-11-03

Hilabete honetako kartela

ARGIA emanaldiak ekimena abian jarri dugu. Taberna, gaztetxe, kultur etxe eta euskaltegi ezberdinetan hilero dokumental bat proiektatuko da, guztiak euskaraz edo euskarazko azpitituluekin. Helburua Euskal Herri osoan kalitatezko lanen zabaltzea eta euskarazko ekimenen inguruko bilguneak bultzatzea da. Proiektua irekia da eta herritarren partehartzea ezinbestekoa da. Zure herrian ekimen hau antolatu nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan: 943371545 edo sustapena@argia.com helbidean.

Proiektatuko diren lanak ARGIAren dokumentalen kanaletik hartuko dira, eta aldez aurretik ARGIAk ezarria du hilabete bakoitzean zein izango den elkarteek emango duten lana. Hilabete bakoitzean elkarte guztiek lan bera emitituko dute, horrela lan bakoitzari ahalik eta zabalpenik handiena eta bateratuena eman asmoz.

Emanaldi hauek bakoitzak nahi eran baliatu ahal izango ditu. Pertsona edo talde bakoitzak erabakiko du noiz datorkion ongi hileroko ekimena antolatzea, eta ARGIAri garaiz jakinaraziz gero, publizitatea egingo zaio ekitaldiari.

Baldintza bakarra proiekzioak egiteko erabiliko den lekuak telebista edo proiektore bat edukitzea da. ARGIA arduratuko da bakoitzari dagokion dokumentala soporte fisikoan emateaz, kartel iragarle mutuekin batera.

Dokumentala proiektatzeaz gain, honen inguruan bestelako jarduerak antolatzea bigarren pertsona hauen esku geratzen da, baina ARGIAtik elkarte partehartzaileak animatzen ditugu bestelako ekimenak ere antolatzera, hileroko dokumental horiek aitzakia hartuta.

Joan den hilean Salda Badago eta honetan Santi Brouard, Duintasuna omen.

Joan den hilean ekimen hau abian jarri aurreko probak egin ditugu. Salda Badago dokumentala hautatu genuen ekimena abiatzeko eta harrera oso ona izan zuen, zenbait lekutan 50 pertsonatik gora bilduz. Arrasaten, adibidez, RIPeko Txerra Bolinaga eta Eriz Zapirain dokumentalaren egilea eraman zituzten solasaldira. Hilabete honetan berriz, Santi Brouarden bizitzari buruzko lana ikusi ostean, ezker abertzaleko figura honi buruzko hitzaldia antolatu zuen Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak. Gontzal Landa kazetariak solasaldi labur bat egin zuen Tasio Erkizia gonbidatuarekin, Brouarden militantzia eta arrastoaren inguruan mintzatzeko.

Oraingoz ekimenarekin bat egin duten elkarteak:

Beheko mapan topatuko dituzu oraingoz *ARGIA ekitaldiak* ekimenarekin bat egin duten guneak. Mapa eguneratzen joango gara.